

Zortzigarrena. Izena: Ikus-entzunezko irudiak eta argazkiak

- a) Oinarri juridikoa: DBEOren 6.1.e) artikulua: Eginkizun bat interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen jardunean betetzeko behar den tratamendua.
- b) Tratamenduaren xedek: Legebiltzarreko organoen bilkuretan, ekitaldi instituzionaletan eta Legebiltzarren egoitzan egiten diren jardunaldietan edo kolektiboen nahiz partikularren bisitetan lortzen diren ikus-entzunezko irudiak; irudi horiek, gero, artxibatu eta katalogatu egiten dira bideotekan, eta haietarako sarbidea dago Nafarroako Parlamentuaren webgune ofizialean. Parlamentuko artxibo fotografikoak, Legebiltzarreko organoen bilkuretan, ekitaldi instituzionaletan eta jardunaldietan hartutako irudiak jasotzen dituztenak, Legebiltzarreko egoitzaren barruan nahiz hartatik kanpo egindakoak, edo kolektibo nahiz partikularren bisitetan hartutakoak, guztiak ere Nafarroako Parlamentuaren webgune ofizialaren bidez zabal daitezkeenak.
- c) Ukitutako pertsonak edo kolektiboak: Foru parlamentariak, kargu publikodunak eta pertsona partikularrak.
- d) Datu-kategoriak: ekitaldi, saio edo bisita bakoitzaren ikus-entzunezko grabazio banakatuak eta gertaera edo Legebiltzarreko organo edo kideen jarduera bakoitzaren argazkiak.
 - Ikus-entzunezko grabazioak, zehazturik data, organoa, bilkuraren garapena, iraupena eta hizlariak.
 - Argazkiak: ekitaldiaren datarekin eta izenburuarekin.
- e) Hartzaile-kategoria: interesdunak berak eta hedabideak.
- f) Nazioarteko transferentzia: ez dago halakorik aurreikusita.
- g) Bertan behera uzteko epea: Datuak gordeko dira Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko Arauetan xedatutakoaren arabera. Arau horiek 2000ko maiatzaren 15ean onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, eta 2000ko ekainaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.
- h) Entitate arduraduna: Nafarroako Parlamentua. Nafarroako Parlamentuari norbere datuen eskurapena, zuzenketa, ezabaketa, eramangarritasuna, haien tratamenduaren murriztapena eta tratamendu horri aurka egitea eskatzeko eskubidea baliatu nahi izanez gero, bidezkoa denean, hori idatziz egin behar da, helbide honetara joz: Navas de Tolosa kalea, 1, 31002 Iruña. Bestela, posta elektronikoko honako helbide honetara: dpd@parlamentodenavarra.es.